

# Bernardo Atxaga

50 URTEKO OFIZIOA



## 'ENARAK' DA NIRE BIZITZA OSOKO LANAREN MARRAZKIARI FALTA ZITZAION KOLOFOIA



Nobela berria publikatu zuen iragan Durangoko Azokan, *Enarak* (Pamiela, 2025), eta liburua hartuta joan gatzazkio galdezka. Ez, haatik, lana disekzionatzeko asmotan, *Enarak*-ez bezainbat, edo baino gehiago, honetaz eta hartaz jarduteko baizik. Bai jardun ere. Idazlearen ofizioaz, besteak beste.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

**Hainbat elkarrizketa eman dituzu nobela berri hau joan den udazkenean argitaratu zenuenetik, eta beti-betikoa da lehen galdera: “Etxeak eta hilobiak publikatu zenuenean, hura zure azken nobela izango zela adierazi zenuen, baina, orain, berriz, *Enarak* ekarri diguzu”. Galdera bera egin beharrean gaude...**  
Arrazoiz! Betikoa, gehiegi hitz egin duenak ordaina jasotzen du gero. Kar, kar... Hala ere, uste dut liburuan bertan dagoela galderaren erantzuna. Pedrok, pintoreak, halako erorialdi

bat du, eta eszena bat irudikatzen du: enarak, udazkena etorrita, argiaren harian erreskadan jarrita, alde egiteko prest. Enarak irudikatu eta Pedrok bere buruari galdetzen dio: “Niri ere, alanbrean jarri eta ez ote zait iritsi alde egiteko unea?”. Jendeak, oro har, ez du une hori benetan hartzen, ez du horretan pentsatu ere egin nahi. Aldiz, idazle batek horretan ere pentsatu beharra dauka. Gehiago esateko, idazleak ahal den gauza guztietan pentsatu behar du. Erorialdi horretan, Uzarielen, ainguru militarrek, Pedro interpelatzen du:

“Baina zeri diozu beldurra, izan litekeen dinamorik indartsuena daukazu eta zeure barruan: pintatzeko nahia, pintatzeko gogoia”.

(...)

Aspalditik datorren ideia da. Duela hogeita hamar urte-edo Zumetari [Jose Luis] egin nion katalogo batean, haren pintatzeko gogoia eta Neolito garaian kobazuloetan bizi ziren izakien pintatzeko gogoia konparatzen nituen, eta gogoia bera zutela esaten nuen. Liburu honetan ere horixe esaten dio Uzarielen Pedrori:



# Bernardo Atxaga

ASTEASU, GIPUZKOA, 1951



Jose Irazu Garmendia, idazlea –esan beharrik ba ote dago?–, duela 50 urte publikatu zuen lehen lana, *Ziutateaz*, eta hamaika liburu gogoangarri etorri ziren gero –ipuin, nobela, hitzaldi, alfabeto, inventarium, gidoi...–, etengabeko zerrenda osatu arteraino. Eta, hala ere, *Enarak* falta omen zitzaion. Oraintxe bai, eman dio azkena bere nobelagintzari. (Baina batek jakin!) Bitartean, inor hasi ote da Atxagaren 50 urteko bidea ospatzeko ekitaldiak prestatzen? Edo, sikiera, Atxagaren irakurleen 50 urteko poza zelebratzen?

“Zuk ez izan beldurrik, ez bakardadeari, ez ezerri. Kobazuloetako haiek pintatzeko kemena zuten, eta eutsi gogo edo kemen horri zeuk ere”.

**Zeure buruaz ari zara, inola ere. Pintatzea da Pedroren kasuan, idaztea da zurean...**

Bai, ni ere hortxe nago. Gogoratzen naizela, hamabi urte nituenetik dut barruan nahi edo gogo hori, zernahi egoeratan ere idazteko gogo. “Idazteko” edo, bestela esanda, pentsatzeko, fabulatzeko, gogoetatzeko gogo. Eta nahi hori ez bazait itzaltzen, idazten segituko dut. Jakina, hortxe dago beti lanak dakarren nekea. Izan ere, Cesare Pavese idatzi zuen bezala, *laborare estanca*, lan egiteak nekatu egiten du. Askok ez dakite hori, ze batere lanik ez dute egiten. Kar, kar...

**Dakienak badaki: laborare estanca...**

Bai, eta batez ere nobela bat egin duzunean, eta nobela bat egiteak dakarren tentsio guztia pilatu zaizunean. Lana bukatu, eta horixe ateratzen zaizu: “Azkena! Utzi egingo diot nobelak idazteari!”. Baina, hurrena, berriz ere idazteko gogo edo nahi hori datorkizu, dinamoa martxan jartzen da —edo motorra—, eta segitu beharra daukazu idazten.

**Idazle zara ofizioz, kalteak ere jasotakoa.**

Ofizio baten barruan ari zarela sentitzen baduzu –eta ni halaxe sentitu naiz, ez baitut ene bizitzan beste lanik egin–, badakizu denetarik izango duzula, baita agresio handiak jasoko dituzula ere. Nire kasuan, agresio handiren bat jasotakoa naiz, baina txarre-na ez da inoiz agresioa bera, baizik eta agresio horrek sortzen duen lurrun mefitikoa. Batzuk poztu egiten dira inoren frakasoarekin. Beste batzuk, berriz, lintxatzaile profesionalak dira, perfume-ontzietara zomorro likitsak botatzea gustatzen zaie, dena kiras-tea. Baina, berriro esanda, horiek denak oso ondo eramaten dira ofiziotik. Ofiziorik ez balego, hutsuneak ikara emango luke. Eutsiko diogu, ofiziotik. Bestela, nekez.

**Eta hartu *Enarak* nobela, eta hasiera: “Mendi bazter bateko kanposantura bidali gintuzten Jose Manuel Ibar Azpiazu izaki materialaren ehorzketa zelatatzeraz. Lau aingeru militar ginen eskudran eta, une eder hari zegokionez, oso pozik geunden denok”. Urtain boxeolaria lurperatzeraz doaz. Eta zer zenbiltzan zu Arroagoian Urtain hil eta urteetara?**

Paseatzen! Jende askok dauka Urtain [José Manuel Ibar] gogoan. Nire kasuan, behin baino gehiagotan ibili dut Urtainen trasuntoa nire lanetan. Da memoria, baina memoria, gehienetan, da izpiak! Zergatik etortzen zait gogora Urtain? Ni mutil koskorra izango nintzen, eta gaztea, berriz, Urtain. Nonbait, gure herrian azaldu zen, Asteasun. Ez nuen ezagutzen. Ikusi nuen, eta arreta eman zidan, halako mutil bizia iruditu zitzaidan. Orduan, andre bat pasatu zen Urtainen albotik, eta esan zion lotsagabe: “Zertara etorri haiz hona? Zeren bila habil?”. Tonu erotiko bat-edo zuen andrearen esateko modu hark, eta interpelazioak ni –mutil koskorra–, inpresionatu egin ninduen. Eta, jakina, pertsonaiari segitu nion gero.

**Istant hura gogoan iltzatu zitzaizun...**

Eta istant hori hartu eta jo dezakezu haren biografiatik, eta erreportaje bat osatu. Hori da erregistro bat, baina beste bat har dezakezu eta aitzakia modura erabili apustuen munduaz idazteko. Asko inpresionatzen nauen mundua da –harria, aizkora, idiak...–, ze nik apustuen mundua ez baitut ikusten modu folklorikoan, barrutik baizik: azpitik dabilen berealditako mundu ezkutu edo gorde hori, bistara ez dagoena.

**Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian etortzen zait gogora.**

Bai, orduan [1984] hori egin nuen. Orain, ordea, bizitzak erakutsi didana gogoan hartuta, bestela egin dut, eta lekuz kanpo dagoen gizakiaren ildotik interpretatu dut istant hartara.

“**‘Enarak’ idaztea izan da poza, berealdiko poza, euforia, dantzan arin sentitzea bezala**”



ko pertsonaia, marginazioaren ildotik. Urtain, auskalo zer indarrek bultzatuta boxeolari bihurtu zen hura: pobrezia bultzatuta, mendikoa izateak, faxismoaren losintzek... Nik alde horretatik ulertzen eta interpretatzen dut Urtain: bere lekutik atera, Ibainarrieta, eta Madrilen bukatzen du, bere burua botata. Zirkulu horretan interpretatzen dut Urtain, ume abandonatu bat bezala: abandonatu du estatuak, abandonatu du Elizak eta berak ere, agian, abandonatu du bere burua. Alde horretatik ulertzen da nobela honetan izaki material hori.

#### **Oraintxe erakutsi diguzu zure lanaren kableatua!**

Ez dago hitza gaizki esana, "kableatua"!

#### **Zeuri ikasi genizun!**

Bai? Ez naiz, bada, akordatzen! Zerbaite gehituko dut orain: testuaren azpian dagoena, "kableatua", ikusgai dagoena baino askoz zabalagoa da. San Telmon [museoa, Donostia] egin nuen aurkezpena Joseba Apaolazak lagunduta, eta horixe esan nuen orduan.

#### **Eta, esandakoez gainera, zer dago, kasu honetan, testu honen azpian?**

Esate baterako, haur basatiaren gaia. Nork esan, ezta?

#### **Haur basatia? François Truffautek zinera eramandako *L'enfant sauvage* hura?**

Bai. Victor de Aveyron. Gai hori beti egon da nire baitan. Pentsa, behin, autoa hartu eta Aveyronera joan nintzen! Basoko umea non azaldu zen ikusi nahi izan nuen, nola harrapatu zuten, zer gertatu zitzaion gero... Askotan aipatu dut Victor de Aveyron nire lanetan, era batera edo bestera. "Kableatua" esan duzu, eta hortxe erabili dut gaia, behin baino gehiagotan, nire testuetan.

#### **Arroagoiko hilerrian zu, paseatzen, Urtainen hilobiaren bila...**

Ez nenbilen hilobiaren bila baina, paseatzen ari nintzela, Urtain bertakoa zela gogoratu nintzen. Era berean, ikusi nuen halako oroitarri bat han inguruan, istripuz hildako bi gazteren

oroimenez egindakoa. Hainbeste gazte hil dira bide bazterretan! Horrek ere inpresionatu ninduen. Orduan, halabeharrez –eta halabeharra ere oso inportantea da–, baserritar bat ikusi nuen –baina fabrika lan egiten duen horietakoa–, gizon atsegina, eta, zorte handiz, esan zidan oso hurbiletik eza-gutu zuela Urtain. Eskola garaitik! Eta Urtaini buruz hizketan hasi ginen. Eta, halako batean, galdetu nion: "Eta non dago, bada, lurperatuta?". "Hortxe zegoen!". Alegia, Urtain han lurperatuta egon zen, baina ni joan nintzenerako ez zegoen han, 25 urte eta gero, kanposantuko zulotik atera egiten dituztelako hildakoaren hezurak.

#### **Halabeharra...**

Bai. Nik esango nuke, errealitateari arre-ta pixka batekin begiratzen dionak –ez maleta batekin begiratu liokeen bezala, ze maletak ez du ezer ikusten–, errealitatearen ehunka eta ehunka erantzun jasoko dituela denbora gutxian. Arreta kontua da, ez da besterik. Ez da arreta berezirik ere behar, begiak erne eta belarriak zabal ibiltzea besterik. Komeni da, gainera, ez denbora osoan munduan barrena kontinenterik kontinente bidaiatzen ibiltzea, baizik etxe inguruan paseatzeko denbora pixka bat izatea. Kar, kar...

#### ***Enarak-en*, aingeru militarrek lagun hartuta ibili zara hara eta hona, eta, lehenago, *Kilker bat autopistan* liburuan, berriz, zeruan barrena ibili zinen, batzuekin eta besteekin hizketan...**

Narrazioek behar teknikoak izaten dituzte. Esate baterako, kontaktzen den horri tonu bat edo mugimendua emateko torloju bat behar duzu, pertsonaia bat, objektu bat, eta baliteke hurrena torloju horrek beste testu batean joko ematea. Adibidez, aurrena aingeruak baliatzea pentsatu nuen, aingeru guardakoak. Gero, ordea, deabru guardakoa asmatzea erabaki nuen, zeruan modu klandestinoan dabilena, pentsatuz joko emango zidala. Eta *Enarak-en* aingeru militarrek dira. Euskadi Irratian egindako kolaborazioetatik atera zen oraingo aingeruen ideia. Kronika haiek horretara jarri edo behartu ninduten. Bide batez, zuk elkarrizketak egiten dituzenez gero, haraxe joan beharko zenuke, zerura, han jende asko baitago elkarrizketatzeko modukoa. Munduan baino gehiago! Kar, kar...

### Aingeru militarrek baliatzeak jokoa eman dizu, bistan denez.

Jokoa eman ez ezik, zirrikitua ireki zion lengoaia jakin bati, espresatzeko modu jakin bati eta, batez ere, egiak esateko modu jakin bati. Aingeru guardakoak ezin du -errealitateaz ari dela-, handikeriarik esan, zarkarkerietan ibili, baina deabru guardakoak bai, ahal du. Eta *Enarak*-eko Semiyazza, Azazel eta gainerako aingeru militarrek, zer esanik ez! Adibidez, aktore bat eszenan dotore jantzita agertu, jendeagana jiratu eta puzkerra botatzen badu, itsusia da, ez dator aktorearen plantarekin bat. Aldiz, aktore hori bera pailazoz jantzita badago, aukera du zernahi egiteko, zernahi modutara espresatzeko nahi duena.

### Lehenago ere baliatu duzu errekurtsua, ezta?

Bai. *Bi anai* eta horrelako lanetan. Pertsonaiak ez baitira humanoak, komeni zaizkidan espresatzeko moldeak erabiltzeko aukera daukat. *Enarak* honetan, muturreraino eraman dut joera hori, lau baitira aingeruak, eta bakoitzak nahi duen modura hitz egiten baitu. Nik ezin- gero nuke neure izenez Azazelek bezala hitz egin, itsusi, zakar, baldar eta iraingarri. Halako pertsonaia batek askatu egiten du lengoaia, eta, nire ustez, horixe da literaturaren sekretua: zein pertsonaia asmatzen duzun, hark markatu egingo du narrazioa.

### Gogoak ematen dion bezala hitz egingo duelako.

Eta idazleari komeni zaion bezala, testu biziagoa egin ahal izateko. Eta, azken finean, horixe izan da nire ahalegina liburu honetan.

### Dakidanez, oso gustura jardun duzu *Enarak* idazten. Jolasa izan da nobela hau idaztea?

Areago, izan da poza, berealdiko poza, euforia, dantzan arin sentitzea bezala. Jolasa izan den... jolasa oinarrian dago, baina zuk nahi duzuna da irakurlearekin lotura egitea, haren arimarekin. Jolasa engainagarria da, irakurleari "begiratu hona!", esanez bezala ari zara, baina, benetan, haren barruan sartu nahi duzu. Gustatzen zait jolasa, Raymond Queneauk bezala ari-keta dibertituak egitea [*Estilari- ariketak*], gustatzen zait abangoardiak duen nabarmentasun hori, estrabagantzia, testuari eta diskursoari *sermo gravis* delakoa, grabedadea, kentzen baitio. Grabedadea ondo dago, baldin ez bada faltsua, nola izaten baita %99 handian: "Bihotzera eraman zuen eskua...". Bai, jende faltsuak egiten duen bezala!

### Eta, orduan?

*Sermo gravis* horretatik ateratzeko, oso ondo datoz jolasa, broma eta estrabagantzia -inauterietan bezala, nahi bada-, baina, horretan, irakurlea konturatu gabe saiatu behar du idazleak. Irakurleak, berriz, arretaz irakurri behar du, ez modu arin batean. Baina irakurlea beti *thriller*-ak irakurtzen ari bada, beti liburu honetan edo hartan "zer gertatu zen gero" galdezka baldin badabil, eskas gabilta. Irakurtzeko oso modu primarioa da suspensearen mende dagoenarena. Entretenimendua ondo dago, baina entretenimenduaz harago badago bizitzarik. Nik esango nuke hortxe dagoela bizitza interesgarriena, kanpoan.

### Bukatzer a noa, hasierara noa... Han edo hemen esan duzu hauxe idaztea falta omen zitzaizun, *Enarak*, alegia. Baina ez dakit zer den "hauxe".

Lan honek nire hasiera eta bukaera

lotzen ditu. 50 urte dira lehen lana publikatu nuenetik, *Ziutateaz*, eta hemen bada haren itzal bat, edo usain bat. Ez dut memoriak idazteko asmorik, baina, atzera begira jarri, eta konturatzen naiz laneko bizitza osoan marrazki bat egiten aritu naizela. *Enarak* da marrazki horri falta zitzaion kolofoa. Eta liburuaren bukaeran, kolofoiaren kolofoa dago, nire sinadura egin izan banu bezala da.

**Zuri ikasita bezala egingo dut: hitz beste. Iragan azaroan, Lanartearen mintegian, *striptease* fiskala egin zenuen -zeure hitzak dituzu-, esanez hilean 300 euro jasotzen dituzula -400 euro ken 100-, hau da, pentsioaren erdia, erretiro partzialeko erregimenean. Eskandalagarria iruditu zitzaidan, eta hura bezain eskandalagarria iruditzen zait harrezkero egin dituzun elkarrizketetan -eta ez dituzun gutxi egin-, inork zuri ez horretaz galdetzea.**

Oso ona! Tormesko itsumutilaren pasarte batekin esplikatzen da hori. Mahats-sorta bat dute itsuak eta itsumutilak, eta esaten du itsuak: "Jango dugu, baina ale bana, aldiko!". Hasten dira jaten eta, halako batean, zartako bat ematen dio itsuak mutilari, esanez: "Zer ari haiz hi, mahats-aleak hirunaka jaten?". Eta itsumutilak: "Nola dakizu, ordea, aleak hirunaka jaten ari naizela!". Eta itsuak: "Ni binaka jaten ari naizelako, eta hik ez dualako protestarik egiten!". Berdin, nire kasuan. Isil-isilik denak, haiek hirunaka jaten ari direlako, eta ni, aldiz, banaka; noizean behin, binaka. Horixe da seinalea. Horregatik ez dute gehienek bere erretiro daturik erakusten. Oso erretiro polita daukatelako, hiru mahats-ale jaten dituztelako hilabetero; etxe askotan, sei! Ez dut inori ezer eskatzeko asmorik, baina kartak erakutsi, behintzat! Jakinaren gainean egon dadila jendea. ●

BABESLEA:

